

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Burua galduta

METAURO, ITALIA, K.A. 207. Anibal handiaren anaia Asdrubal Barkak Eszipionen aurkako gatazka galdu zuen eta etsaiak burua moztu zion. Erromatarrek anaiaren burua eman zioten opari kartagotarrari; horrela jakin zuen Anibalek Asdrubalen heriotzaren berri.

Burua moztuta hildakoen artean hainbat santu topa daiteke. Ziliziako Kosme eta Damian bikiek Dioklezianoren aginduz galdu zuten burua. Santa Barbarari, aldiz, aitak egin zion ebakia zintzurrean. San Albano britainiarra ere buruaren truke lortu zuen santutasuna. Beste aldean, buru-moztaileen artean, agintariak dira nagusi. Genghis Khanek agindutakoa betetzen ez zuenak lepotik gorakoa galduko zuen; Selim otomandar sultanak, aldiz, bere agindupeko bisirren buruak biltzeko grina zuela dirudi.

Baina burua mozteko zaletasunagatik inor ezagun egin bada, horixe Tudor familia da; eta senitarteko guztien artean, zehazki, Enrike VIII.a Ingalaterrako errege gizona. Edozein arrazoï erabiltzen zuen edozeinen burua eta gorputza bereizteko. Sir Thomas More-k, esaterako, ez zuen onartu erregea eliza anglikano-ko buru espiritual gisa eta horregatik bere buruari agur esan behar izan zion. *Utopiaren* egilearen burua, gainera, luzaz egon zen herritarren bistan. Hori bai, ziurrenik kasu honetan ere burua galtzeak bultzadatxo bat emango zion Thomas Moreri santutasuna lortzeko orduan.

Ana Bolena Enrikeren bigarren emazteak ez zion luzaroan eutsi titulu horri, ezta buruari ere; traizioa leporatu eta lepoa moztu zioten. Laugarren emazte Ana de Clèves ez omen zen erregearen gustukoa, eta horregatik ezkontza bultza-

tu zuen Sir Thomas Cromwelli galdu arazi zion burua. Bosgarren emazte Katherine Howarden eta honen amorante Thomas Culpepperren buruak ere laster ziren lurrean bueltaka.

Zaletasun genetiko ote? Maria Tudor alabak ez zuen alferrik *"Bloody Mary"* (Mary Odoltsua) ezizena jaso. Neba Eduardo VI.a gazte hil zen, baina aurretik Lady Jane Grey eta Lord Guildford Dudley aukeratu zituen erregeorde izateko. Haiek oztopo izan ez zitezen, Mariak bururik gabe utzi zituen biak.

Mariaren ahizpa Elizabethek ere zerrenda polita osatu zuen: bere lehengusina eta Eskoziako erregina Mary Stuart burugabetezko agindua eman zuen; Lord Robert Devereux-entzat ere agindu berdina eman zuen, "erregina birjina" rekin harreman estuak izan arren. Lord Thomas Seymour, Enrike VIII.aren alargunarekin ezkondu zen gizona, erreginaren aginduz hil zuten. Agindua exekutatu zuena, gainera, Seymourren anaia Edward izan zen. Edward bera ere urte batzuk geroago hil zuten... burua moztuta, noski.

Baina Ingalaterratik Frantziara salto egin behar da, han asmatu baitzuten, XVIII. mende amaieran, buru-moztaileen historia erabat aldatuko zuen tramankulua. Joseph-Ignace Guillotin izeneko mediku batek egin zuen, heriotza zigorrera kondenatutakoen sufrimendua arindu nahian. Eta Frantziako biztanle kopurua arindu zuen. Besteak beste, Luis XVI.ak eta emazte Marie Antoinettek probatu zuten Guillotinen xafra zorrotza. Robespierrek, aldiz, marka guztiak hautsi zituen bere alderdikideei gillotina errezetatzeko orduan eta, nola ez, azkenean berak ere burua eskaini behar izan zion iraultzari. ■



Robespierrek denetik probatu zuen: lagun asko bidali zituen gillotinari eta bera ere tramankulu hark hil zuen. Ana Bolnak, berriz, senar Enrike VIII.aren aginduz galdu zuen burua.

ARRASTOAK

BRASILEN artelanak lapurtzea erraza da. Azken hamar urtetan 12.000 obra desagertu dira Brasilgo museoetatik. Besteak beste Picassoren *La danse* edo Salvador Daliren *Los dos balcones* koadro garrantzitsuak lapurtu dituzte. Horrez gain, 8.523 argazki historiko, eta 1.310 artelan sakratu eraman dituzte.

PONPEIAN ere artelan garrantzitsuak desagertzeko arriskua dago, lapurretarik egon ez arren. Hango freskoak ez daude batere zainduta, eta edozeinek egin ditzake pinturentzat hain kaltegarriak diren argazkiak. Misterioen Etxean, esaterako, ez dago zaintzaile bat ere. Atean dagoen postal saltzaileak soilik gogorarazten du debekua, negozioari eutsi nahian.



Misterioen Etxea, Ponpeian.